# GARRAI DIGITALA



Ikasleak: Xabier Madariaga, Xabi Martin,
Urko Alonso eta Paul Estrade
Tutorea: Blanca García Campillo
Ikastetxea: Aixerrota BHI
Maila: DBHko 1.a eta 2.a
Ikasturtea: 2020/21

# Sarrera eta helburuak

Inguruko ia nerabe guztiek mugikorra dutela ikusi genuenez, institutuko ikasleentzat arazo bat izan zitekeen pentsatu genuen, eta galdeketa bat prestatu genuen matematikako Estatistika proiektu bezala. Galdetegi horrek gaur egungo nerabeak mugikorraren menpe bizi direla erakuts dezake bere galderekin.

Hauek dira galdetegiko galderak.

Azken galderekin norbait mugikorraren menpekoa den edo ez nabaritu ahal izateko egin ditugu, naiz eta aurretik ezetz esan badu ere. Lehen esan dugun bezala, galdetegi honen asmoa nerabeak ea gailuen menpe dauden nabaritzea da, eta ezagutzea horietako askok haien mugikorra beren bizitzaren zati oso garrantzitsua den.

# Material eta metodoa

Google-ko galdetegia diseinatu genuenean, gure irakaslearekin berrikusi genuen eta bidali egin genuen. 80 pertsona erantzun ondoren, berriz bidaltzea erabaki genuen, informazio gehiago jasotzeko. 100 erantzun baino gehiago lortu genituenean gelditu genuen, 104 erantzunekin zehazki.

Gizon eta emakumearen genero alternatiboa zuten pertsonen erantzun oso gutxi zeudela ikustean estatistiketarako kontuan ez hartzea erabaki genuen, haietako gehienak inkestan txantxak egin zituztelako. Aste Santua zehar aprobetxatu eta berriro aktibatu egin genuen, eta laugarren mailako, batxilergoko lehenengo mailako eta batxilergoko bigarren mailako ikasleei bidali genien, erantzun gutxi genituelako. Aste Santuaren bueltan 119 erantzun zeuden.119 horien artean gehienak DBH 1, DBH 2 eta DBH 3koak ziren. Beste mailetan, ordea, ez dugu erantzuni nahikorik ondorio adierazgarriak ateratzeko. Horregatik erabaki dugu adin horietan kontuan ez hartzea.

Guzti hau kalkulatzeko Google-ko kalkulu orriak erabili genituen, bai taulak eta bai diagrametarako. Botoak ikusteko eta organizatzeko “COUNT” erabili genuen.

# Datuen analisia

## Lehenengo galdera: Ze mailakoa zara?
## Bigarren galdera: Generoa?

Bi galdera honekin ikusi genuen erantzun zuten ikasleen adina eta generoa, hau da lagina nolakoa zen.

| Mutilak | Zenbat pertsona? 61 mutil | Neskak | Zenbat pertsona? 58 neska |
|---|---|---|---|
| 1 maila | 18 | 1 maila | 15 |
| 2 maila | 24 | 2 maila | 23 |
| 3 maila | 10 | 3 maila | 4 |
| 4 maila | 3 | 4 maila | 2 |
| 1 batx | 4 | 1 batx | 6 |
| 2 batx | 2 | 2 batx | 8 |

Ikusi ahal dugunez mutil gehiagok erantzun dute neskek baino. Gehien erantzun duen kurtsoa 2. maila izan da, hori normala da ikasleak proiektu honekin korreoari oso adin egon direlako.

Goiko taulan ikusten den moduan institutuko nagusiagoek gutxiago erantzun zuten. Horregatik ateratako ondorioak ez dira hain zehatzak izango nagusientzat.




Diagrama honetan ikus dezakegu erantzun duten ikasleen adinaren maiztasuna. Generoa koloreekin desberdindu ditugu.

Adinarekin media egiten badugu ateratzen da 14 urte eta erdikoa ateratzen da. Honekin nabaritzen da boto gehienak 1. zikloko ikasleenak direla.

## Hirugarren galdera: Zenbat ordu erabiltzen dituzu gailu digitalak eskolatik kanpo?

Galdera hau base bat izango da beste galderarako. Galdera oso sinple bat da baina oso garrantzitsua eta ahaztezina.

| Zenbat ordu? | 1 ordu | 2 ordu | 3 ordu | 4 ordu | +5 ordu |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 maila | 2 | 6 | 2 | 3 | 5 |
| 2 maila | 2 | 8 | 6 | 6 | 2 |
| 3 maila | 0 | 2 | 3 | 3 | 2 |
| 4 maila | 0 | 0 | 1 | 1 | 1 |
| 1 batx | 0 | 0 | 3 | 0 | 1 |
| 2 batx | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| 1 maila | 2 | 6 | 3 | 1 | 3 |
| 2 maila | 0 | 8 | 6 | 7 | 2 |
| 3 maila | 0 | 0 | 2 | 0 | 2 |
| 4 maila | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 |
| 1 batx | 0 | 0 | 3 | 2 | 1 |
| 2 batx | 0 | 3 | 5 | 0 | 0 |

Galderen erantzuetan desberdintasunak ikusteko eta hainbeste datu izanda taula handi batean datu guztiak jartzea erabaki genuen. Egin dugu genero bakoitzeko taula bat galdera bakoitzeko.




Aurreko grafikoan ikusi dezakegunez ia-ia ikasleen heren bat 3 orduz edo gehiago erabiltzen dute aparatu elektronikoren bat. Hori kezkagarria izan daiteke, mobila delako gehien erabiltzen den aparatu elektronikoa, eta hori kaltegarria izan daiteke begietarako daukan pantaila txikiagatik. Nesken eta mutilen artean ez dago desberdintasun esanguratsurik.







Erantzunak genero eta mailen arabera ikusita, interesgarria da ikustea nola gora egiten duten gauzak nesketan oinarrituta. Nesken kasuan ikusten da neska gehienek gauza berdinak erabakitzen dituztela, boto gehienak 2 eta 3 ordukoak direlako. Baina garrantzitsuena da nabaritzea 4 mailan eta batxin dauden informazioa ez dela esanguratsua.

## Laugarren galdera: Denbora horretako zenbat ordu dira emankorrak? (Lanean zaude eta ez jolasten)

Kezkatuta utzi ginduen teknologiaren erabilera hain handia izateak. Horregatik erabaki genuen galdetzea, ea institutuan ordenagailu portatil bat izateak aparatu elektronikoekin lan gehiago egitera bultzatzen duen. Galdera ordenatzerako unean aurreko galderako taula antzekoa erabili dugu, generoaren arabera informazioa banatuta.

| Denbora emankorraren ehunekotan | %0 | %25 | %50 | %75 | %100 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 maila | 0 | 7 | 6 | 5 | 0 |
| 2 maila | 1 | 6 | 7 | 8 | 2 |
| 3 maila | 4 | 2 | 4 | 0 | 0 |
| 4 maila | 1 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| 1 batx | 0 | 0 | 1 | 3 | 0 |
| 2 batx | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| 1 maila | 0 | 6 | 4 | 3 | 2 |
| 2 maila | 1 | 7 | 12 | 3 | 0 |
| 3 maila | 0 | 1 | 3 | 0 | 0 |
| 4 maila | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| 1 batx | 0 | 2 | 2 | 2 | 0 |
| 2 batx | 0 | 4 | 4 | 0 | 0 |

Ikasle gutxik erabiltzen dute teknologia bakarrik lan egiteko. Lau pertsona horiek, teknologiarekin lan egiten ez dutenen erdiak dira.




Interesgarriena da ia inork ez duela gauza gehiegizkorik hartu eta %0 %100 baino gehiago dela, eta %25 %75 baino gehiago dela. Horregatik heldu gara ondorio hauetara:

Ikasle gehienek apartu elektronikoak asko erabiltzen dituzte etxera heltzean, eta ez dute ia lanerako erabiltzen aisialdiarekin alderatuta. Gehien erabiltzen den aparatu elektronikoa mugikorra denez, uste dugu ikasle askoren ikusmena arriskuan dagoela. Ehunekoen batezbestekoa 44,96% da, horregatik esan ahal dugu ez dela positiboa.







Ikusten da mutilen botoen diferentziak, genero honetan askoz boto gutxiago daudela ehuneko 50an. Ikus dezakegu nola %25 eta %75 handiagoak direla eta %0 asko handitu dela.

Azkenengo grafiko honekin baieztatu ahalko genuke neskak ordenatuagoak eta langilegoak direla ikusiz kontrol handiagoa dutela, ia ez dago %0 eta %100, eta %50 ia dauka erantzunen %50. Nahiz eta %50 igotzen den, %75 jaitsi egiten da.

## Bostgarren galdera: Zer egiten duzu gauean mugikorrarekin?

Dagoeneko ikusi dugu aisialdian dagoen mobilaren erabilpena, eta harrituta geratu gara erakutsitako ehunekoekin. Galdera hau egitearen arrazoia gauean egiten den erabilpena oso mingarria izan ahal dela begientzat da. Asko erabiltzea edo lokartu arte ez da batere nahi dugun erantzuna galdetegian.

| Gauean? | Ezer | Alarma | Gutxi | Asko | Lokartu arte | Dependitzen |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 maila | 9 | 4 | 2 | 1 | 1 | 1 |
| 2 maila | 10 | 4 | 3 | 3 | 4 | 0 |
| 3 maila | 3 | 3 | 1 | 1 | 2 | 0 |
| 4 maila | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 |
| 1 batx | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| 2 batx | 0 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 |
| 1 maila | 8 | 3 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 2 maila | 5 | 6 | 5 | 1 | 4 | 2 |
| 3 maila | 0 | 1 | 0 | 0 | 3 | 0 |
| 4 maila | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| 1 batx | 1 | 1 | 0 | 2 | 2 | 0 |
| 2 batx | 1 | 2 | 0 | 1 | 1 | 3 |

Taula hau hain handia denez ez du merezi irakurtzen saiatzeak diagramarik gabe. Baina bai ikus ahal ditugu adibidez 2 batxiko jendea asko erabiltzen dutela mugikorra gauean, baina boto gutxi ditugulako ezin dugu esan ziur datu hauek egia diren. Baina ikusten nola 10 ikasletik bakarrik 2 (%20) ez dute mugikorra inoiz erabiltzen gauean.




Hau da galdera honen diagrama nagusia. Nerabe askok ez dute mugikorra erabiltzen gauean, eta beste askok bakarrik alarmarako. Interesgarria da nola ikasle gutxik erabiltzen duten mugikorra gauean lokartu arte. Uste genuen ikasleen erantzunak desberdinak zirela, baina gehiago atera da aukerarik txarrena, “lokartu arte”.




Hemen ikusi ahal dezakegu genero banaketa. Ikusi ahal dena da nola urdina, horia eta berdea jaisten diren eta laranja eta morea igotzen diren nesken grafikora pasatzerakoan. Gorria dagoen bezala geratzen da. Esan ahal dugu nesken joera txarragoa dela, lokartu egon arte mugikorrarekin denbora guztia daudelako askok. Gainera mutil askok ez dutelako ezertarako erabiltzen.

## Seigarren galdera: Uste duzu mugikorraren menpe zaudela?

Galdera hau oso zuzena da. Ikasleak egia esatea nahi dugulako.

| Uste duzu mugikorraren menpe zaudela? | Bai | Ez |
|---|---|---|
| 1 maila | 8 | 10 |
| 2 maila | 9 | 15 |
| 3 maila | 4 | 6 |
| 4 maila | 1 | 2 |
| 1 batx | 1 | 3 |
| 2 batx | 1 | 1 |
| 1 maila | 3 | 12 |
| 2 maila | 6 | 17 |
| 3 maila | 3 | 1 |
| 4 maila | 1 | 1 |
| 1 batx | 4 | 2 |
| 2 batx | 4 | 4 |

Ikusi ahal dugu nola boto gehiago daude “ez” aukeran edo nagusien botoetan ez dugu erantzun nahikorik esanguratsua izateko. Horregatik esan ahal dugu ikasle gehienek uste dutela ez daudela menpe.

.




Ikusi ahal dugu nola gutxi gora behera “bai” botoak ezetz esan duten ikasleen bi herena direla.







Bai neskek eta bai mutilek daukate 37 erantzun “Ez” arloan. Horregatik nabaritzen da mutilek erantzun gehiago dutela baietz esaten, 3 ikasle gehiago direlako.

## Zazpigarren galdera: Zenbat urterekin hasi zinen mugikorrarekin?

Galdera hau egin genuen ikusteko zenbat urterekin lortu zuten ikasleek mugikorra. Ea hori zen oso goiz edo berandu.

| Zenbat urterekin hasi zinen mugikorrarekin? | 8 edo gutxiago | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 maila | 3 | 1 | 0 | 11 | 3 | 0 | 0 |
| 2 maila | 1 | 1 | 5 | 6 | 11 | 0 | 0 |
| 3 maila | 2 | 0 | 1 | 5 | 2 | 0 | 0 |
| 4 maila | 0 | 1 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 |
| 1 batx | 0 | 0 | 0 | 1 | 2 | 0 | 1 |
| 2 batx | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| 1 maila | 0 | 0 | 3 | 6 | 5 | 0 | 1 |
| 2 maila | 0 | 1 | 5 | 9 | 6 | 2 | 0 |
| 3 maila | 0 | 0 | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| 4 maila | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| 1 batx | 0 | 1 | 0 | 3 | 1 | 1 | 0 |
| 2 batx | 0 | 0 | 0 | 2 | 4 | 2 | 0 |




Ikusten da hemen moda 11 dela, emandako ia mugikor guztiak institutura pasatzerakoan direla nabaritzen da, eta beste mugikor asko lortzen dira 6 mailara pasatzean. Hori azalduko luke 10 urteetan dagoen pikoa eta 11 urteak 12 urteak baino boto gehiago dituela.







Ez dago neskarik mugikorra oso goiz lortu duena, baina beste aldetik bai daude bost mutil mugikorra oso goiz lortu zutenak. Hemen arazoa dator bere erabilpenarekin, umeak sare sozialetan sartu ahal bada han dauden arriskuaz gertu dago. Mutilen erantzun gehienak 11 eta 12 urteen artean daude, eta neskenak ere bai baina banatuagoak, beraz heterogeneoagoa da.

## Zortzigarren galdera: Mugikorra jolasteko erabiltzen duzu?

Hau galdetu nahi izan genuen generoen arteko banaketa ikusteko. Mutilen kasuan baieztapenen ehuneko handi bat ikustea espero genuen, eta nesken kasuan gutxiago.

| Jolasten duzu mobilarekin? | Bai | Ez |
|---|---|---|
| 1 maila | 16 | 2 |
| 2 maila | 20 | 4 |
| 3 maila | 7 | 3 |
| 4 maila | 2 | 1 |
| 1 batx | 2 | 2 |
| 2 batx | 1 | 1 |
| 1 maila | 10 | 5 |
| 2 maila | 12 | 11 |
| 3 maila | 4 | 0 |
| 4 maila | 0 | 2 |
| 1 batx | 4 | 2 |
| 2 batx | 4 | 4 |

Taula hori ikusita, ikus daiteke ez gabiltzala gaizki bideratuta, mutilak mugikorrarekin jolasteko joera handiagoa dutelako.




Diagramari begiratzean esan daiteke nerabeen artean mugikorren bideo-jokoak gailentzen direla, eta inkesta erantzun duten nerabeen bi heren baino gehiago jolasten dutela mugikorrarekin.







Grafiko honetan adinaren arabera banatu ditugu ikasleak. Uste dugulako nagusiek batera beharrezkoak diren boto guztiak dituztela. Diagrametan alde handia dagoela aipatu behar da, azterketek eragiten duten presio handiaren ondorioz aisia-denbora jaitsi egiten dela pentsatzen dugu.

## Bederatzigarren galdera: Zer egiten duzu mugikorrarekin oporretan?

Mugikorraren erabilpena ezagutzeko ideia bat denboraldi baten erabilpena ikustea zen. Idea zen udan, mugikorraren erabilera jaistea, eta horrela izan da.

| Zer egiten duzu mobilarekin oporretan? | Ez dut erabiltzen | Ez dut ia erabiltzen | Batzuetan erabiltzen du | Asko erabiltzen dut | Denbora guztian erabiltzen dut |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 maila | 1 | 3 | 7 | 7 | 0 |
| 2 maila | 0 | 7 | 9 | 7 | 1 |
| 3 maila | 0 | 1 | 4 | 5 | 0 |
| 4 maila | 0 | 0 | 1 | 2 | 0 |
| 1 batx | 0 | 1 | 2 | 1 | 0 |
| 2 batx | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 |
| 1 maila | 1 | 0 | 4 | 8 | 2 |
| 2 maila | 0 | 2 | 12 | 9 | 0 |
| 3 maila | 0 | 0 | 2 | 2 | 0 |
| 4 maila | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 |
| 1 batx | 0 | 1 | 4 | 1 | 0 |
| 2 batx | 0 | 2 | 3 | 3 | 0 |

Ikusi ahal dezakegu ia inork dagoela denbora guztia mugikorrarekin, beste aldean ia inork ez du ezer erabiltzen. Gehienak batzuetan edo askotan erabiltzen dute.




Ikus daiteke gehienek erabiltzen dutela mugikorra oporretan eta oso gutxik ez dutela erabiltzen edo denbora guztian erabiltzen dutela. Horrek esan nahi du ikasleek mugikorra erabiltzen dutela oporretan baina ia inor ez dela bakarrik mugikorrarekin ibiltzen. Horrekin esan dezakegu jendeak oporrak aprobetxatzen dituztela. Baina kezkagarria da askok asko erabiltzen dutela mugikorra, eta horrek esan nahi du jende asko horren menpe dagoela eta ez dutela oporrak guztiz aprobetxatzen.







Mutilen artean ikusten da nola “ia ez duten erabiltzen” erantzun asko daudela konparatzean.

## Hamargarren eta azken galdera: Zer nahiago duzu?

Galdera horretan hainbat erantzun "pozoituta" jarri genituen, grafikoan tonu gorrixkak izango dituztenak. Erantzun horiek proiektu honetan zehar jorratutakoarekin lotuta daude; erantzun horietako bat erantzuteak ez du esan nahi txarra denik.

| Zer nahiago duzu? | **Musika entzutea** | **Lagunekin txateatxea** | **Bideo-jokoetan jolastea** | **Sare sozialetan nabigatzea** | Lagunekin ateratzea | Kirola egitea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 maila | **2** | **1** | **5** | **1** | 6 | 3 |
| 2 maila | **4** | **0** | **9** | **0** | 8 | 3 |
| 3 maila | **1** | **0** | **2** | **2** | 2 | 3 |
| 4 maila | **0** | **0** | **2** | **0** | 1 | 0 |
| 1 batxi | **1** | **0** | **2** | **0** | 1 | 0 |
| 2 batxi | **0** | **0** | **0** | **1** | 1 | 0 |
| 1 maila | **1** | **1** | **1** | **5** | 6 | 1 |
| 2 maila | **4** | **4** | **0** | **3** | 11 | 1 |
| 3 maila | **2** | **0** | **0** | **0** | 2 | 0 |
| 4 maila | **0** | **0** | **1** | **0** | 0 | 1 |
| 1 batxi | **1** | **0** | **0** | **0** | 4 | 1 |
| 2 batxi | **0** | **0** | **0** | **0** | 6 | 0 |

Ikus dezakegu erantzunak nahiko ondo banatuta daudela. Argi ikus daiteke atalik bozkatuena lagunekin irtetea dela, eta bestea, erantzun askorekin, bideo-jokoetan jokatzea izango litzateke.




Diagrama honetan ikus daiteke nola saiatu garen bereizten mugikorrarekin zerikusia duten jarduerak (gorrixka dutenak) eta horrekiko independenteak diren jarduerak. Diagrama hau nesken eta mutilen artekoa da.







Grafiko honetan mutilen artean ikus daiteke gutxi gorabehera tresna digitalak erabiltzen dituzten jarduerak eta horrekin zerikusirik ez dutenak nahiko erantzun antzeko lortu dituztela, bakoitzak % 50.

Bestalde, neskek ez bezala, mutilek batez ere jolasten dute bideo-jokoetan. Nesken kasuan, berriz, mugimendua erabili beharrean, gehienbat jolasteko, sare sozialetan nabigatzeko erabiltzen dutela ikus daiteke.

Nabarmendu behar da neskak kiroletan baino gehiago geratzen direla tresna digitalekin ez daudenean; aldiz, mutilak lagunekin geratzen dira, baina kirol dezente ere egiten dute.

# Ondorioak

1. Ikastetxeko 1.zikloko ikasle asko mugikorraren menpe daude, nahiz eta jende gutxik onartu duen adikzioa daukala. Hau horrela jarraitzen badu arazo bat izango litzateke.

2. Ikasleek aparatu elektronikoak batez ere aisialdirako erabiltzen dute, nahiz eta aurten ordenagailuak beharrezkoak diren lan egiteko. Horrek esan nahi du ikasleek ez diotela erabilera ona ematen, aparatu hauek esan dugun bezala ez direlako asko erabili behar.

3. Nahiz eta gazteen artean aparatu elektronikoek arrakasta izaten duten, oraindik kalera irtetea eta kirola egitea askoz gehiago gustatzen da ikasleei. Honek pentsarazten digu jendeak aparatu elektronikoak ez dituela bakarrik erabiltzen jolasteko edo denbora pasatzeko.

4. Naiz eta gehienek ez duten aparatu teknologikoak erabiltzen gauean bai erabiltzen duten jende talde bat dago, eta erabiltzen duten gehienak gau osoa daude mugikorrarekin.

5. Oporretan mugikorra naiz eta asko erabili kontrolpean dago eta ikasle gehienak ez dute mugikorraz abusatzen.

Konklusio definitiboa da gailu digitalak etorkizuna direla. Hori frogatzeko duela 20 urte oso gutxik erabiltzen zutela ikusten da eta gero orainaldiarekin konparatuz diferentzia oso handia dela ikusten da, orain gazte guztiek erabiltzen dutelako. Uste dugu ikasle batzuek bakarrik izango dutela arazoak haien etorkizunean teknologiaren erruagatik.

# Eranskina: Ikerketan egindako galderak

- Ze mailakoa zara?
  - 1. maila
  - 2. maila
  - 3. maila
  - 4. maila
  - 1 batx
  - 2 batx
- Generoa
  - Mutila
  - Neska
  - Beste bat
- Zenbat ordu erabiltzen dituzu gailu digitalak eskolatik kanpo?
  - 0
  - 1
  - 2
  - 3
  - 4
  - +5
- Ordu horietatik ehuneko zenbat denbora produktiboa zara? (Lan egiten eta ez jolasten)
  - 100%
  - 75%
  - 50%
  - 25%
  - 0%
- Zer egiten duzu gauean mugikorrarekin?
  - Ez dut ezertarako erabiltzen
  - Alarma bezala erabiltzen dut
  - Gutxitan erabiltzen dut gauean
  - Asko erabiltzen dut lokartu baino lehen
  - Lokartu arte egoten naiz mugikorrarekin
  - Egunaren araberakoa da
- Uste duzu mugikorraren menpe zaudela?
  - Bai
  - Ez
- Zenbat urterekin hasi zinen mugikorrarekin?
  - 8 edo gutxiago
  - 9
  - 10
  - 11
  - 12
  - 13
  - 14 edo gehiago
- Mugikorra jolasteko erabiltzen duzu?
  - Bai
  - Ez
- Zer egiten duzu mugikorrarekin oporretan?
  - Ez dut erabiltzen
  - Ez dut ia erabiltzen
  - Batzuetan erabiltzen dut
  - Askotan erabiltzen dut
  - Mugikorrarekin egun guztia nago
- Zer aktibitate nahiago duzu?
  - Musika entzutea
  - Lagunekin txateatzea
  - Bideo-jokoetan jolastea
  - Sare sozialetik ibiltzea
  - Lagunekin ateratzea
  - Kirola praktikatzea